

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 74 urteko Donostiako auzokoa hil da Lodosan zekor batek adarkatuta

*Zekor batek entzierroaren ibilbidetik ihes egin eta herriko jai-egitarauan jasotzen zen ekitaldia ikusten ari ziren zenbait auzoko adarkatu ditu*

Martes, 02 de agosto de 2011

Sortzez Lodosakoa zen Félix de Luis Morentin Donostiako (Gipuzkoa) auzokoa, 74 urtekoa, hil egin da gaur goizean, Lodosan, zekor batek lepoan adarkatuta. Egunotan herriko jaiak ospatzen ari dira Lodosan. Zekorrek entzierroaren ibilbidetik ihes egin eta ekitaldia ikusten ari ziren zenbait auzoko adarkatu ditu, hala ere, bik bakarrik behar izan dute medikuaren laguntza.

Nafarroako Gobernuaren lehen lehendakariordeak, Roberto Jimenezek, komunikabideen aurrean zegoela doluminik biziena eta atsekabe handia adierazi dizkio hildakoaren familiari gertatutakoarengatik. Berriemaileei nola gertatu den azaldu die eta Foruzaingoa argitzeko lan egiten ari dela adierazi du.

Ihes egindako zekorrek zenbait lagun adarkatu ditu. Haietatik, 25 urteko J.A.M. gaztea, Najerako auzokoa (Errioxa), Lizarrako García Orcoyen Ospitalera eraman dute, bekainean kolpea hartuta eta pronostiko erreserbatuko zenbait traumatismorekin. Halaber, herriko osasun-zentrora eraman dute Lodosako 62 urteko emakume bat, belaunean kontusioak izanda.

Gaur goizeko 9:20an gertatu da. Zekor-taldea zezen-plazara sartzean, hesien eremu makur batean, gogor jo dituzte babesak eta ihes egitea ezinezkoa den eremu batera irtetea lortu dute. Taldea ibilbidera itzuli da baina kontrako noranzkoan, eta arrisku uneak sortu dituzte. Artzainei eta atzean zeuden joaldunei ez diete kasurik egin. Bi zekorrek gogor jo dituzte hesiak eta zati batean apurtu eta ihes egitea lortu dute.

"Vinatero" izeneko 3 urteko zekorretako bat harrapatzea lortu dute kapadunek Foru Plazan eta soka batez heldu dute enpresariak dardo narkotikoak erabiliz lo eragin duen arte.

Beste zekorrek, "Tortolillo" izenekoak, 3 urte dituenak, lepoan adarkatu du gero hil den pertsona. Emaztearekin zegoen atari baten ondoan. Foruzaingoa ikertzen ari da gertatutakoa. Horren ondoren entzierroaren ibilbidera bueltatu da.

Foruzaingoa gertatutakoaren atestatua egiten ari da. Lodosara joan dira Herritarren Segurtasunerako, Joko eta Ikuskizunen eta Trafiko Departamentuetako patruilak. Entzierroa Lodosako jaien hirugarrena izan da eta Prieto de la Cal ganadutegikoak ziren.